

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea



**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**  
**Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación**

**IKUS-ENTZUNEZKO GRADUA**  
2014-2015

**SORMEN LAN BATEN ERREALIZAZIOA**  
**FILM LABURRA: FISHURA**

EGILEA: Yago Mateo Velasco  
ZUZENDARIA: Nekane Erritte Zubiaur Gorozika

2015eko irailaren 16a

# 1. AURKIBIDEA

2. Fitxa teknikoa	2
3. Logline eta sinopsia	3
4. Proiektuaren azalpena	4-5
5. Erreferentziak	6-7
6. Ekoizpen egutegia	8
7. Pertsonaia: IRENE	9
8. Casting-a	10
9. Ile apainketa eta jantzitegia	11-12
10. Lokalizazioak	13
11. Soinu Banda	14-15
12. Analisi filmikoa	16-22

## **2. FITXA TEKNIKOA**

Izenburua: FISHURA

Lan mota: Fikzioa

Egilea: Yago Mateo

Iraupena: 00:06:45

Jatorrizko formatua: HD (1920x1080p)

Aspektu erlazioa: 16:9 (2.35:1 itxura estetikoari dagokionez)

Hizkuntza: Euskara

Azpitituluak: Euskaraz (partzialki)

### 3. LOGLINE ETA SINOPSIA

#### LOGLINE

Irenek ez ditu sekula begiak kliskatu, bizitzako une garrantzitsuak galtzearen beldur baita. Arrainak dira, antza, haren egoera uler dezaketen bakarrak. Animalia hauekiko debozio sutsuak etikaren mugak gainditzera eramango du gaztea.

#### SINOPSIA

Gizakiok gure artean ezberdintzen gaituzten elementu ugari ditugu: janzkera, ibiltzeko modua, atributu genetikoak ala izaerari dagozkion bestelako ezaugarriak. Baditugu ordea batzen gaituzten beste hainbat elementu.

Irenek, ordea, hauetariko bat faltan du: ezin ditu begiak kliskatu.

Gabezia honek arrainekiko identifikazio zuzena izatera eramango du. Neskatoak gupida sentitu eta edozer gauza egingo du animali hauek salbatu ahal izateko.

Hasieran, arrainengan aurkituko du bilaturiko identifikazioa baina hauek ikertuz konturatuko da haien hauskortasun eta babes falta berarenak baino handiagoak direla. Irene, babes bila egotetik babesa eskaintzera pasatuko da.

Horregatik, dendetara joan eta arrainak erosiko ditu geroago itsasoan askatzeko.

Egun batean, arrantzale batekin topo egingo du. Elkarrekin hitz egin eta honek ematen dion azalpenarekin Irene ez da ados geratuko.

Are gehiago, justizia bere gain hartu, arrantzalea akabatu eta hau jan egingo du. Zorakeria hau burutzerakoan begiak itxiko ditu lehen aldiz Irenek. Arrain bihurtzeko nahian, gaztea inoiz baino gehiago izango da gizaki.

#### 4. PROIEKTUAREN AZALPENA

Akzioak pertsonaia eraman beharrean, pertsonaia beraren ezagueran murgiltzen den film labur bat egitea izan da helburu nagusia.

Gizartetik at geratzen den izaki bat aurkezten zaigu. Hala ere, Irene ez da gizartetik kanpo gelditzen besteetatik bereizten duten elementuak direla eta baizik eta komunean izan beharreko elementu bat faltan duelako.

Beste maila batera eramanda, gure gaur egungo gizarteak dituen fobia eta mespretxu ugari ez dutela jatorria atributu ezberdinetan baizik eta atributu berdinen faltan demostratzea da lanaren helburu.

Sortutako ikus-entzunezko testuak ez du eredu klasikoa jarraitzen eta esan liteke begiak oso ondo irekita izan behar ditugula lanaren benetako mezua eta sakonera ulertzeko. Nola nahi ere, filma irakurketa maila ezberdinetara zuzendutako mezuz bustita dago.

Errealizadore gisa, argi neukan euskaraz eginiko ikus-entzunezko testu bat sortu nahi nuela baina azaldu berri dudan ideari fidela izanez, ez nuen euskal filmek dituzten atributu komunetan erori nahi (Euskal Herriko lokalizazioak erabiltzea zein gure herriaren usadio diren errepresentazioak islatzea).

Horregatik, film labur atemporal bat egitea izan zen helburua. Toki konkretu batean zein denboran kokatzeko zaila den filma, alegia. Hau guztia Euskara hizkuntza erreminta nagusi bezala. Hau da, modu batean demostratu Euskara tresna dela istorio bat kontatzeko Euskal Herrira mugatu gabe.

FISHURA sakonagoa da: Ez da Ireneren istorioa non hasi edo amaitzen den baizik eta gu gizarte gisa nola jokatzeko dugun.

Hasieran oso ideia polita iruditu zitzaidan norbait begiak kliskatzeko beldur dela pentsatzea. Baina, ez berez ezin duelako edo gabezia bat duelako baizik eta bizitzarekiko sentikortasun handi horrek ez diolako uzten. Une eta instant garrantzitsuak galtzearen beldur izateak Irene beste maila batera eramaten dute.

Hau ulertu eta onartzea funtsezko pausua da film labur osoa ulertzeko. Bizitza errealean ezinezkoa litzateke horrelako pertsona bat aurkitzea baina fikzioak ahalbidetzen du horrelako jokoak egitea.

Pertsonalki, oso bitxia suertatu izan zait beti arrainek begiak ez dituztela ixten ulertzea eta aldi berean, oso poetikoa dela uste dut. Begiak eta ikusmenaren zentzumena oso lotuta daude gure graduarekin, etorkizuneko profesioarekin eta nire kasu pertsonalean, nire izaerarekin; nire ezinbesteko zentzumena dela uste baitut.

Ideia guzti hauen ezkontzak FISHURA sortzera eraman ninduten. Margolan bat balitz bezala, edozein momentutan oso argi izan dut zer egiten ari nintzen eta zergatik baina aldi berean, egia da film laburraren muina ez dela ikuslearentzako mezu zuzen bat bidaltzea. Istorioa aitzakia narratibo bat da eta helburu nagusia Irenek proposatzen digun mundu horretan murgiltzea da bakoitzak bere erara zentzua emanez.

Zuzendari gisa, badakit eta onartzen dut jende askok film laburra amaitzean istorioa ez duela ulertu pentsa dezakela baina ziur nago gauza batetaz: arazoa ez da izango ez dutela ulertu baizik ez direla ziur egongo ikusi dutenari eman dioten zentzua beste batek eman dionaren berdina den edota nik, zuzendari gisa eman nahi nuen mezua berauek jasotako berdina den. Pertsonalki, hausnarketa jarrera hori zoragarria iruditzen zait.

Horregatik, FISHURA paradigma modernoaren barne kokatuko nukeen film labur bat dela esango nuke. Askotan zaila da pertsonaia non dagoen kokatzea, zertan ari den ulertzea edo hobe esanda, kontatzen ari zaiguna zertara bideratuta dagoen ulertzea. Nahi gabe, gure buruan arrazonomendu prozesu bat jartzen da martxan eta nik sortu dudak ikus-entzunezko testu honen lekukoa ikusleei pasatzen diet.

Laburbilduz, film laburra erreminta bat da ni errealizadore gisa munduarekin konpartitu nahi dudak mezu bat helarazteko. Baina beste hainbat pelikula edo film labur ez bezala, jomuga ez da soilik mezu bat helaraztea baizik eta graduan zehar ikasitakoaz eta esperientzia propioaz hornituz, hausnarketa jarrera bultzatzen duen mezu bat ikuslearekin konpartitzea.

## 5. ERREFERENTZIAK

Lan honi aurre egiterako orduan, film konkretuetan oinarritu baino, gustoko ditudan korronte zinematografiko edota zinemagileen teorietan funtsatzea erabaki nuen.

Hasteko, aitortu beharra daukat korronte klasikotik baztertzen saiatu arren, azkenean ez diedala uko egin aro klasikoaren zenbait ezinbesteko ezaugarri lantzeari. Noël Burch-ek *Práxis du Cinema* (1968) liburuan hainbeste garrantzia ematen zien raccord eta lotura kausalek muntazko garrantzia izan dute ere nire film laburrean. Beraz, modu batean edo bestean, lana paradigma modernoaren barne kokatu arren raccord-a eta kausalitatea mantentzeaz arduratu naiz.

Aldi berean, zinema klasikoaren eredu gidaria alde batera utzi nahian, irakurketa anitzak bultzatzen dituen film bat egitera murgildu naiz. Horregatik, zinema klasikoak muntaketa orduan batera jarriko lituzkeen bi plano (ikuslea galdu ez dadin) ditut batera kokatu nahi izan. Ideia hor dago baina ikuslearen esku uzten dut esanahi hori hartu ala uztea. Defendatzen dut, beraz, ikuslea ikus-entzunezko testuaren parte dela ere honen sorkuntza prozesuan eta ez soilik aparteko elementu bezala.

Beraz, muntaketak ere berebiziko garrantzia izan du FISHURAn. Sobietar Batasunaren eskolaren ustetan, muntaia da filmaren oinarri estetikoa eta modu batean, bat nator pentsatzeko modu honekin. Horregatik, S. Eisensteinek proposatzen zuen erakartze muntaian edota muntaia intelektualean oinarrituta dago nire lana.

Dziga Vertov-ek “zine-begia”ren kontzeptua ezarri zuen 1923. urtean eta harentzako zinemaren artifizioa postprodukzioarekin batera dator. Pudovkin-entzat ere balore sinbolikoa muntaiaren eskutik dator. Ez zaie arrazoia falta pentsatze modu honetan eta aitortu beharra daukat FISHURA muntatzeko orduan hainbat saiakera ezberdin burutu nituela filmaren atmosfera guztiz alda zezaketenak. Beraz, korronte honi lotuta, muntaketak ezinbesteko papera jokatu duela esan nezake. Hau da, postprodukzioak eragin handiagoa izan du emaitzan (esanahiari dagokionez) preprodukzioak baino.

Literaturara salto eginez, Kafka-ren *La metamorfosis* (*Die Verwandlung*, 1915) erreferentzia baino, nolabaiteko inspirazioa izan dela esan nezake. Izan ere, animalia eta gizakiaren arteko identitate galera horretan murgilduta dauden pertsonaiak dira protagonista eta haien psikologia eta testuingurua ulertzean datza istorioa.

Estetikoki edo bisualki, erreferentzia gisa Georges Franju autorearen *Les yeux sans visage* (1960) edo Almodóvarren *La piel que habito* (2011) izan ditut gogoan. Franjuren kasuan, filmaren itxura estetikoa eta protagonistaren begirada beldurgarria kontuan hartu ditut FISHURA sortzerako orduan, baina nik ez dut estetikoki beldurrezko film bat sortu nahi izan baizik eta edertasunaren bidez, pertsonaia zoro eta ezegonkor baten errealitatea irudikatu. Beharbada, bide honetatik FISHURA gertuago dago Almodóvarren *La Piel que habito* filmetik erreferentzia gisa. Errealizadore mantxatarrak kontu handiz eraikitzen du plano bakoitza eta honetan agertzen den ia-ia elementu oro,

esanahi edo zentzu bati lotuta dago. Ez dago, beraz, kasualitatez agertzen den ezta elementu ñimiñoena ere.

Lan egiteko modu hau jarraitzen saiatu naiz eta enkoadreen zein diegesiaren barne agerturiko elementuen prestakuntza zorrotza egiten saiatu naiz. Dena esanahira edo zentzura bideratuta egin dut. Hori bai, inoiz ahaztu gabe errespetatzen eta bilatzen dudala gero ikuslea izatea bere ondorio propioak ateratzen dituen.



## 6. EKOIZPEN EGUTEGIA

Ondoren adierazten da hasiera batean pentsatutako lan egutegia eta behealdean honekiko egin behar izan genituen moldaketak. Hau izan da lanaren atal zailenetariko bat produkzio fasea udan burutu genuelako eta parte hartu duten pertsona guztiak datetan koordinatu eta elkartzea ia ezinezkoa zelako. Arrazoi honengatik ere, hasierako ideia baztertu behar izan nuen film egingarri bat aurrera atera ahal izateko.

<u>UZTAILA</u> <u>1-5</u>	<u>UZTAILA</u> <u>6-12</u>	<u>UZTAILA</u> <u>13-31</u>	<u>ABUZTUA</u> <u>1-7</u>	<u>ABUZTUA</u> <u>8</u>	<u>ABUZTUA</u> <u>9</u>	<u>ABUZTUA</u> <u>10</u>	<u>ABUZTUA</u> <u>11</u>	<u>ABUZTUA</u> <u>12</u>	<u>ABUZTUA</u> <u>13-24</u>	<u>ABUZTUA</u> <u>24-31</u>	<u>IRAILA</u> <u>1-10</u>
<u>Prepro-</u> <u>dukzioa</u>  Plan A	<u>Prepro-</u> <u>Dukzioa</u>  Plan A	<u>Prepro-</u> <u>dukzioa</u>	CASTING Lana:  -Facebook - "Solo actores" (Madril/ Donostia)  <u>Kontaktuak</u>	<u>GRABAKETA</u>  <u>Goizez:</u> <u>-Itsasargi</u> <u>planoak</u>  <u>Arratsalde:</u> <u>-Portua</u> <u>errekurtso</u> <u>planoak</u>	<u>GRABAKETA</u>  <u>Goizez:</u> <u>-Sek. Umea</u> <u>Sarearekin</u> <u>-Irene</u> <u>urazpian</u>  <u>Arratsalde:</u> <u>- Sek. afari</u> <u>finala</u>	<u>GRABAKETA</u>  <u>Goizez:</u> <u>- Sek.</u> <u>Komuna</u> <u>- Sek. Animal</u> <u>denda</u>  <u>-Kaleko</u> <u>Planoak,</u> <u>Kotxea.</u>  <u>Arratsalde:</u> <u>- Sek. afaria</u> <u>arrainarekin</u>	<u>GRABAKETA</u>  <u>Goizez:</u> <u>- Sek.</u> <u>Supermerkatua</u>  <u>Arratsalde:</u> <u>-Portua</u> <u>errekurtso</u> <u>planoak</u>	<u>GRABAKETA</u>  <u>Goizez:</u> <u>-Sek.</u> <u>Arrantzalea</u> <u>eta Irene</u> <u>- Errekurtso</u> <u>planoak</u> <u>cala</u> <u>- Sek. amildegia</u> <u>-Sek. kainabera</u> <u>-Sek. arraina</u> <u>libre</u> <u>Arratsalde:</u> <u>-Over ahotsak</u>  <u>-Bikoizketa</u>	<u>Postpro-</u> <u>dukzioa</u>  <u>Lehen</u> <u>Muntaia</u>  <u>+</u> <u>Aukera-</u> <u>keta</u> <u>musikala</u>	<u>Postpro-</u> <u>dukzioa</u>  <u>Muntai</u> <u>Definitiboa</u>  <u>+ audio</u> <u>postpro</u>  <u>+ etalonajea</u>	<u>Postpro</u> <u>dukzioa</u>  <u>Etalonajea</u>
* = PLANGIN- TZATIK KANPO EGINDAKO ALDAKETAK		*Uzt. 30: Material Jasotzea EHU-n  *Plan B	*Jantzitegi Aukeraketa  *ab. 3: Ile mozketa  *talde teknikoa "Ok" a lortu	*Atrezzo erosketa		* - Errepika- pena eraztun planoa	*Plan B: Beste supermerkatu batera joan.			* Over batzuk errepikatzea	

## 7. Pertsonaia: IRENE

Irene da, azken finean, pertsona ezberdin baten errepresentazio poetiko edo metaforikoa. Fikzioak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuz, pertsonaia guztiz “zorogarria” (zoroa+zoragarria) sortu nuen. Abiapuntua hau zen: begiak kliskatu ezin dituen pertsonaia bat sortzea baina ez berezko gabezia edo gaixotasun batengatik baizik eta sentsibilitate berezia izanagatik: bizitzako une garrantzitsuak galtearen beldur izatea. Aldi berean, poetikotasun honen atzean, pertsonaia guztiz zoro bat sortu nahi nuen.

Pertsonalki, oso polita iruditzen zitzaidan poetikotasun eta zorotasun horiek elkartzea. Egia da Irenek ez duela lekurik gure gizartean baina fikzioak ahalbidetzen du bere existentzia. Tomas Albadalejoren *Teoría de los Mundos posibles*-en (1986) proposatutako teorian, kontaketa hau “2. motako munduan” koka genezake; errealtate efektiboa beste modu ezberdin batean irudikatzen baitu.

Gure joera taldekoa dela eta, Irenek arrainengan lortuko du identifikazio hori eta animalia hauek salbatzeko edozer egiten saiatuko da. Beste gizakiengan aurkitu ez duen onespena arrainengan bilatuko du eta haietako bat bihurtzen saiatuko da baina bere eraldatze prozesuan, gero eta gizakiago bihurtuko da eta hasieran duen inozentzia galduz joango da. Azkenean, inoiz baino gehiago izango da gizaki eta gureak propioak diren jokabideak izango ditu (mendekua, maltzur izatea, etab.).

Doc Comparato autoreak *De la creación al guión* (1988) liburuan pertsonaien zailtasun mailaz hitz egiten du eta antagonista bat sartzearen garrantziaz. FISHURA-n ageriko antagonista bat dagoela dirudi: gizartea bera, Ireneren eta bere idealen aurka baitoa baina ez genuke ahaztu behar Irenek bere barnean dualitate oso argi bat duela eta arrain bihurtzeko nahian, bere alde gizatiarrak irabaziko diola partida. Beraz, antagonista ez da kasu honetan pertsonaia banandu bat baizik eta protagonistaren inguruan zein bere barnean bizi dena.

## 8. CASTING-A

Laura Gollenalde aktore eta laguna izan zen casting-az arduratu zena nire laguntzarekin batera.

Egun gutxi genituenez grabaketa hasteko, casting-a sare sozialetan eta gure kontaktuen artean zabaltzea erabaki genuen. Ez zegoen denborarik casting presentzial bat egiteko eta beraz, Facebook-en bidez eta “Solo actores”-en bidez interesatuta zegoen jendea, bere videobook eta CV-ak bidali zizkiguten emailera.

Bestalde, grabaketa datetara egokitzeko arazorik izango ez zuen pertsona bat bilatu genuen eta egun horietan libre egon beharra zuen. Izan ere, film laburra ez zen ez Euskal Herrian ez Madrilen grabatuko.

Azkenean, ezagun eta kontaktuen bidez lortu genuen Ireneren papera interpretatuko zuen aktorea: Bárbara Rivas.

Laurak eta biok argi geneukan film labur honetarako itxura fisiko edo espresibitateak ezinbesteko papera jokatu zuetela eta zintaren arrakasta edo porrota, modu handi batean, protagonista egokiaren aukeraketan zetzala.

Barbarak fisikoki perfila betetzen zuen begi handiak baititu eta hau delako Ireneren berezitasun handiena, baina gainera, Bárbara Madrilgo RESAD unibertsitatean keinuzko interpretazioan lizenziatua da eta orduan konturatu ginen bera zela Ireneren papera egiteko pertsona egokia.

Film laburrean agertzen diren pertsonaiak bigarren maila batean daude eta horregatik, “Irene” aurkitzea zen gure berebiziko kezka baina Barbarak oniritzia eman zigunean, ia-ia lan gehiena eginda genuela konturatu ginen eta egia esan, lasaitasun handia izan zen protagonista lortzea hain egun gutxitan.

## 9. ILE APAINKETA ETA JANTZITEGIA

Behin protagonista perfektua aurkituta, *Irene* pertsonaia moduan sortzeko beharra zegoen eta bai ilea zein janzkera ezinbesteko papera jokatu zutela argi neukan. Izan ere, pertsonaia berezia da bere neutraltasunarengatik eta batez ere, begiradarengatik baina benetan *Irene* sortzeko, kontu handiz aukeratu behar genuen arropa eta ilea.

### -Ile apainketa

Aktoreak zeukan ile orraztea ez zen oso egokia pertsonaiarentzat eta gainera bere nahia ere pertsonaiaren eta bere arteko diferentzia ahalik eta nabariena izatea zen. Horregatik, hasieran motots bat jartzea pentsatu genuen aurpegia eta begirada nabarmendu nahian baina aktorearekin hitz egin ondoren, azkenean ilea moztea adostu genuen eta aldaketa izugarria izan zen.

Ilea motz eramatera animatu zen Bárbara eta horrela lortu genuen bere aurpegiak espresibitate handiagoa izatea eta azken finean, *Irene* sortzea. Ile apaindegira joan ginenean, oso kuriooa izan zen ile-apaintzaileari “arrain” itxura lortu nahi nuela esan niolako.

Azkenean, oso gustora geratu ginen Bárbara eta biok emaitzarekin aldaketa zoragarria izan zelako eta nik lortu nuelako nahi nuen efektua. Ileak uhinak sortzen zituen arrainen hegatsak balira bezala. *Look-a* perfektua zen.




Bárbararen ilea FISHURA grabatzen hasi baino lehen.



Ile mozketaren ostean.

### Inspirazioa:

Esan bezala, hegatsetan inspiratuta, mugimendu hori errepresentatzen zuen ile mozketa bilatu genuen eta emaitza bat dator bilatutakoarekin. Bere ileak uhinak sortzen zituen arrain baten hegatsak balira bezala.



### Jantzitegia



Hau izan zen beste ezinbesteko enborra pertsonaia sortzerako orduan. Ilearnen ideia berdina landuz, jantzitegiko arduradunari soineko ia monokromatikoak eskatu nizkion eta oso sinpleak, bigarren larru bat balira bezala. Lasaiera handiko soinekoak bilatu genituen batez ere, hegatsen efektu bera lortzeko eta Mirenek (Jantzitegiko arduradunak) bete-betean eman zuen proposamenekin.

Bestalde, bi enkargu berezi egin nizkion: Marradun soineko bat eta ezkatzen itxurako zapi, lepoko edo elementuren bat. Mirenek bi eskakizunak bete eta ezkatazko adur-zapi zoragarri bat lortu zuen amaierako sekuentziarako. Ezinhobea sekuentziarako, benetan.

## 10. LOKALIZAZIOAK

Nahiz eta euskarazko film labur bat izan, asko saiatu naiz FISHURA testuinguru neutro batean kokatzen. Ez nuen film laburra ez Euskal Herriarekin ezta orokorrean identifikatzeko erreza den edozein tokirekin lotu nahi. Ez demografikoki, ez denboralki.


Alde batetik, nire helburua euskaraz edozein motatako ikus-entzunezko testua egin daitekeela demostratzea da. Askotan, tendentzia baitago euskaraz sortutako obrak soilik Euskal Herrira mugatzera. Bestetik, aurkezten den istorioa mundo hipotetiko batean kokatu nahi nuen errealitatearekin lotura duena baina ezin dezakeguna zehatz-mehatz toki batean kokatu.

Hau da, modu batean, FISHURArako eta Irenerentzako diegetizazio propio bat sortzen saiatu nintzen non pertsonaia hau eta bere egoerak lekua duten sinisgarritasuna galdu gabe.

Bestalde, (aukeraketa estetikoetan sartuz baina lokalizazioekin lotuta) plano oso itxiak erabiltzea erabaki nuen. Hau ez da oso ohikoa lehen aukera bezala. Izan ere, ikuslearentzako deserosoa suerta liteke testuingururik ez izatea edo galduta sentitzea baina plano itxiak aldi berean pertsonaiaren psikologian murgiltzen gaituzte eta hori izan da nire beste helburuetako bat: erakustea Ireneren eta proposatzen dudan mundu hori gehiago bere barnean dagoela kanpoan baino.

Hau guztia kontuan izanda, premisa hauetara egokitzen zen toki bat bilatu genuen eta produkzio aldetik egokien moldatzen zena, Altea (Alicante) herritxoa izan zen. Gero, herri honetatik gertuko beste lokalizazioetara mugitu ginen bilatutako emaitza eta planoak lortzera.

Ez soilik ekonomikoki baizik eta teknikoki ere film labur garestia izan dela esan genezake. Izan ere, ia-ia plano bakoitzak bere produkzio eta antolakuntza propioa izan du eta kasu batzuetan goiz oso bat erabili dugu gero bi edo hiru plano erabiltzeko; itsasargiko kasuan, adibidez.



Hala ere, pertsonaiak berak duen sentikortasun berezi hori bai grabatzeko eran, aukeratutako planoetan zein orokorrean parte hartutako elementu guztietan ere islatu behar zen kontaketa sinisgarritasuna gal ez zezan. Hau da, elementu guztiak norabide berean bideratu behar genituen eta sentsibilitate horrek askotan behar baino denbora gehiago eskatzen zuen.

## 11. SOINU BANDA

Ikus-entzunezko hitzak berak konposaketa batek osatzen du baina ukaezina da bi hitz hauetatik, ikusizko munduak bigarren plano batean uzten duela entzunezkoa. Izan ere, bai graduan zein orokorrean ikus-entzunezko testuetan irudiak garrantzi gehiago duela ematen du.

Nire helburua musikari bere tokia bueltatzea izan da. Nahiz eta egia izan irudiak berebiziko indarra duela, bien garrantzia parekatzen saiatu naiz.

Hasiera batean, film laburrerako propio sortutako soinu banda izango genuen baina posproduzio epe luzeagoa eskatzen zuen atal honek eta horregatik oraindik martxan dagoen fase bat da. Gainera, honek suposatzen duen kosteak produkzioa gehiago garestitzea zekarren eta beraz, momentuz aurrera doan baina amaitu gabe dagoen alor bat da.

Dena dela, aitortu beharra daukat musikaren kontuarekin zalantza handiak izan ditudala. Bi aukera zeuden: zuzen jokatu eta Copyleft edo Creative Commons lizentzia duen musika erabiltzea ala nik benetan FISHURArako nahi nuen musika sartzea.

Askotan erabili ohi dut copyleft musika bideoetan baina aitortu behar dut ez dela nire gustokoena eta FISHURAK benetan abesti perfektuak erabiltzea eskatzen zidala hauen eskubideak izan, edo ez.

Gustatuko litzaidake erabilitako musikarengandik ordaintzeko aukera izatea baina egia esan, ezin dut. Produkzio honek ez du hainbesteko aurrekonturik izan eta ordaindu ezinagatik, ez naiz geratuko gustatzen zaizkidan abestiak erabili gabe.

Behar bada, ez da oso ikuspuntu "legala" baina Elvis Presley-ren abesti bat sartu nahi baldin badut, sartuko dut filmak hala eskatzen didalako eta emaitza finala obra bezala delako nire helburu gorena. Emaitza nire nahien isla izan behar da inongo oztoporik gabe hauek emaitzan eragingo badute.

Behin hau erabakita eta istoriorako musika propioa sortzen ari dela jakinda, Angelos Kottas-ekin harremanetan jarri nintzen musika "*bohemio*" edo alternatiboak aukera zitzan.

Berak 152 abesti eman zizkidan eskatutako ildoan eta hauetatik, muntairako egokienak aukeratu genituen. Musika bakoitzak kapitulu bakoitzari independentzia emateko ez ezik, kontaktaren parte izateko aukeratu genuen.

Ezinbestekoa da ulertzea atal musikala ez dagoela ikertzerik irudiarekin bat ez badator. Izan ere, banatu ezinezko ezkontza sortzen dute bi elementu hauek eta esanahi ezberdinetara eraman gaitzakete banaturik aztertzeak. Horregatik, kontu handiz aukeratu genituen musika egokiak irudiarekin bat norabide berdinerantz abia zitezen.

Lau izan dira aukeratutako abesti nagusiak eta bakoitzak zentzu berezi bat dauka. Michael Chion-ek *L'audio-visión. Son au cinéma et la imagen*-en (1990) argi uzten zuen musikak bete ditzakeen funtzioak irudiarekin bat lotuta.

Aukeratutako lehen abestiak Chionek aipatutako kualitate narratiboei lotuta, funtzio sinbolikoa betetzen du bereziki. Izan ere, Ireneren barne mundua eta nola sentitzen den adierazi nahi du. Ez dago hain bideratuta ikuslearengan emozioak sortzera baizik eta pertsonaiaren barne mundua ulertzera.

Elvis Presley-ren abestia ikuslegora zuzenduago dago eta horregatik bere funtzioa balio erantsia ematea da. Izan ere, "it's now or never" esaten du abestiak eta badakigu zer edo zer ger gertatuko dela.

Hirugarren abestia funtzio plastikoa betetzera bideratuta dago sekuentzia eta momentu ezberdinei lotura ematen dielako eta azken abestiak funtzio ematikoa betetzen du batik bat irudi eta musika batera bidaiatzen dutelako momentu edo klimax-a girotzera.

Beraz, argi dago musikak arrazoi jakin batengatik aukeratuak izan direla eta bere presentziari garrantzia eman nahi izan diodala. Baina soinu banda ez dago soilik musikaz osatuta: elkarrizketak zein soinuek osatzen dute eta kasu honetan ere, kontu handiz aukeratu izan dira (baita aldaketak egin ere) over ahotsetan, adibidez, behar baino gehiago ez kontatzeko.


Azken finean, helburua filmean atal musikalak garrantzia berreskuratzea izan da eta irudi zein soinuak batera bidaiatzea bata besteari itzal egin gabe.



## 12. ANALISI FILMIKOA


Errealizadore gisa eta orokorrean sortzaile gisa, askotan zabaldu nahieko mezua ez da zehatz-mehatz ikuslegoak jasotzen duena. Aitortu izan dut lanarenaren helburua ez dela izan jendeak nik aurkeztutako interpretazioa lortzea baizik eta ondorio propioak ateratzea.

Hala ere, horrek ez du esan nahi nik errealizadore moduan ez diodala ikus-entzunezko testuari nire arrazonomendu eta zentzua eman. Ondorengo atalean, nire ikuspuntu propioaren garapenaren analisia aurkeztzen dut. Analisi hau egiteko, Jesús Gonzalez Requena autorearen *Teoría del Texto*-n oinarrituko naiz eta nire iritzi eta asmoak irudien bidez egiaztatuko ditut. Hau da, irudia letreiatzera gonbidatzen zaituztet eta irudian dagoena irakurtzera.



Zinta hasi eta neskato bat ikusten dugu. Planoa hain itxia da zein ez dakigun non gauden. Neskatoa jaten ari da eta bat-batean, oka egiten du. Zuzenean guri begira geratzen da eta nolabait, ikusitakoaren konplize egiten gaitu. Zinema klasikoan ez bezala, paradigma modernoan protagonista gure (ikusle gisa) eta bere (kontaketa partaide gisa) artean dagoen


muga gainditu eta agerian uzten du elementu profilmiko baten presentzia. Ondoren, inongo abisurik gabe plano beltzera mozten da. Apurketa bat emango balitz bezala, zer gertatu den jakin gabe geratu gara ikusle gisa.



Film laburraren titulua agertzen da: FISHURA. Printzipioz, ezezaguna zaigu hitz hau. Ezin diogu zentzu jakin bat eman baina hitza deskonposatuz, esanahi ezberdinekin topatzen gara. Arraina, arrainak, arrain hura, ura berez, eta fisura edo apurketa. Badu, beraz, zentzua pentsatzeak ikusi duguna eta ikusiko duguna hitz horrek adierazten diguna dela. Hasieran, zentzugabea baina fikziozko diegesi honetan, guztiz posiblea.

Aurrera jarraitu eta neskato bat agertzen da baina korrika doa eta gugandik ihesi doala dirudi. Bizkarra ematen digu. Ez da, beraz, modu argia pertsonaia aurkezteko. Zerbait izkututzen du. Beltzera mozketaz zuzen baten bidez, (apurketa baten bidez, fisura baten bidez, alegia) “Amua- l’amour” agertzen zaigu. Hona hemen Kerbrat Orrechioni autore frantsesak ezarritako kontzeptu bat: enuntzioazioaren aztarna. Gure aurrean agerturiko mezua ez da istorio edo pertsonaiak eskaintzen digun informazio bat. Agerian uzten da kontaketa antolatzen duen kanpo entitate baten presentzia dagoela. Amua - l’amour

hitzak agertzen zaizkigu. Fonetikoki, antzekoak dira eta nolabait, pentsa genezake maitasuna (l'amour) dela amua edo gakoa bizitzan, erlazioetarako, sexurako etab. Segituan, neska bat agertzen zaigu aurrez-aurre. Eta, ez litzateke erokeria bat pentsatzea aurkeztu zaigun "amua- l'amour" hori aurrean dugun neskatoa dela. Bera da amu hori: gakoa. Orain bai, aurrez-aurre dugu neskatoa. Amu hori itsasora begira dago. Zeruertzera, alegia. Urak emankortasuna sinbolizatzen du eta amu/maitasun hori galduta eta beldurtuta ikusten dugu handitasun horretara begira.



Ahots batek Irene aurkezten digu baina hori entzumenaren zentzuari dagokio. Hau da: zentzumenaren bidez aurkezten zaigu pertsonaiaren kanpoaldea, informazio epidermikoa baina barrutik, Irene 25 urte izateaz aparte guk jada badakigu pertsonaia honi buruz informazio are garrantzitsuagoa: galduta dagoen pertsonaia bat dela.

Geroago, Irenek begiak ezin dituela kliskatu dakigu baina bat-batean mugitu eta aurrera egitean, ispilu baten aurrean dagoela konturatzen gara. Beraz, pertsonaia hau ez da uste bezain gardena eta aurkezpen hori egin bitartean, pertsonaia ikusten ari ginela pentsatu eta errealtatean haren isla baino ez genuen aurrean. Beraz, berriro ere pertsonaiak sorbalda ematen digu eta itzalpean agertzen zaigu bere isla baino ez erakutsiz.



Irene aurkezten zaigu modu batean edo bestean eta haren bitxitasunaz ohartzen goaz pixkanaka baita bere arrain jarreraz ere. Ezpainak margotzerakoan, adibidez, arrain bat balitz bezala jartzen ditu baina, hori al da Irene ala Ireneren beste aurpegia da?


Gero eta gehiago dakigu berari buruz. Baina, momentu batean narrazio bat entzutetik, kontaktaren parte izatera pasatzen gara. Izan ere, beti daudela "adi, begiak kliskatu ezinik" kontaktzen digu baina "ni bezala" esaterakoan, gu gara beltz baino ikusten ez

dugunok. Beraz, Irene nolabait barneratu dugu ala berak erabaki du muga gainditu eta ikuslea lehen pertsonan kokatzea. Bere buruan sartu garela dirudi.

Arrain dendan Irene zoriontsu ikusten dugu. Arrainak begiratzekoan adibidez, testuinguruan sartuta ikusten dugu, irrifartsu, dimentsio eta mundu horren partaide sentitzen delarik. Geroago, sare bat aurkezten zaigu, sarean arrain txiki bat dago. Ondoren, ura ikusten da eta Ireneren isla barruan balego bezala. Amu-maitasun hori uraz (emankortasunaz) beteta dago, guztiz. “Bueltatuko naiz” esaten duela ikusten dugu ostean. Arrainei hizketan ari da baina aurreko planoak bere isla aurkeztu digu. Akaso, ez dago Irene hizketan bere alderdi ezkutuarekin?



Kapituluaeren amaiera jakinarazten digu musika aldaketak eta titulu berri batek beste egoera batera eramaten gaitu. Titulu berriak “Baxurako arrantza” dio. Amua- maitasuna dela ulertu badugu, arrantza litzateke nolabait maitasuna edo amodioa ahalbidetzen duen akzio edo jolasa. Gainera, baxura hitzak gertuko zeozer esan nahi du. Gertukoa, txikia, hasiberria nolabait. Ondoren, Irene arraintxo bat erosten ikusten dugu baina flirteatzen ari dela ere pentsa genezake. Beraz, amua (Irene) maitasunaren jolasean hasiberria da eta probatzen ari da.



Afari batek kutsu guztiz erromantikoan eta zita baten testuinguruan kokatzen gaitu. Hara gure sorpresa gaztearekin dagoela ikusi beharrean, arrain batekin hizketan ari dela ikusterakoan. Irene ez da pertsona argia eta zehatza. Bere izaera ez da normala eta bere bikoiztasun hori afarian ikus dezakegu erdia larruaz (gizatasunaz) estalita dagoelako eta beste erdia, ordea,

ezkatak (animaliatasunaz). Beraz, haren izaera ez dago definituta eta ez da bat ere argia.




Ardoa arrainarekin konpartitzea probokazio eta aldi berean elkarte sinboliko bat da baina musua ematerakoan, orduan bai bat egiten du arrainontziarekin eta benetan musu bat ematen diola dirudi. Ez da kasuala ere arrainontzia biribila izatea, esfera formaduna. Antza, esfera bat perfekzioaren errepresentazio goren da. Perfekzioa, garbitasuna, etab. Eta

arrainontzi hori, arraina ez ezik, urez beteta dago: emankortasuna. Beraz, Irenek pasa du bere maitasunaren lehen fase hori eta emankortasun horrekin batu bada ere, oraindik esfera hauskor eta puru bat dauka eskuartean.

Hala ere, gazteak ez du nahiko maitasunaren joko honekin eta haren “esfera” –barne arraina- askatu behar du. Horregatik, kapitulua amaitu eta “askatuko zaitut” entzun bitartean, titulu berria agertzen zaigu: “Alturako arrantza”. Hau itsasoan barrena egiten dena da, askoz ere gogorragoa, luzeagoa eta esperientzia beharrekoa. Beraz, Ireneren joko hasiberrian salto bat dago eta arrain-dendara joatetik, itsasora abiatzen da. Itsaso irekira.

Bere gorputza, bere barnean daraman eta geldieztina den nahia eramateko instrumentu bat baino ez da. Horregatik, eskuartean esfera emankor eta hauskorra darama bere gorputza barnean duen helburua gauzatzeko bidea delarik.

Eskailerak jeisterakoan, bere gorputza eskailerekin fusionatu egiten da bere burua arroka bat dirudien bitartean. Itsasoak gogor astintzen ditu arroka bitartean Ireneren askatasun nahiak bere burua astintzen duen modu berdinean. (\*hurrengo argazkian ikusgai)



Orduan Irenek, momentu idilikoa apurtuko duen errealitate batekin topo egingo du. Arrantzale bat, kainabera handi batekin. Irenek buruan zeukan ideala errealitatearekin guztiz bat ez datorrela konturatuko da. Bere arraintxoaren itsasoan libre uztera doanean, arrainak hartzera dedikatzen den pertsona batekin egingo du topo.

Oraingoan ez da izango lehenaldian arrain-dendan izan den bezain polita. Ireneri ez zaio gustatuko arrantzalea arrantzan ikustea. Metaforikoki eraldaketa bat eta errealitatearekin topaketa bat ikusten dugu hemen. Hasierako maitasun eta amodio politak aurpegi askoz krudelagoa (Irenerentzat) baina naturalagoa (arrantzale nagusiarentzat) hartuko du. Beraz, hazi prozesu bat emango da Irenerengan.



Maitasunaren eta amodioaren ideia berarekin jarraituz, orain Irenek bere emankortasun hauskorra dauka eskuartean baina Itsaso zabala ez da berak uste bezain polita eta era gogorrago batean jolasten (arrantzatzen) duen pertsona batekin topo egingo du. Hala ere, Irenek bere barne nahia askatuko du itsaso zabalean.

Irenek arraintxoaren askatu eta ondoren pertsona bat igerian ihes egiten ikusten dugu. Bere beste aldean ihesian, libre ikusten dugu. Bere kanpo nahia arrainak askatzea delako baina bere barnean, askatasun hori berea propioa delako.

Hala ere, errealitate krudelarekin topo egitea ez da pozgarria izan Irenerentzat eta justizia bere esku hartuko du. Badakigu zerbait gertatuko dela irudiek hala aurreratuko digutelako. Irene marradun soineko batekin ikusten dugu eta burutzen dituen akzioetan marradun testuinguru batean murgilduta dago batik bat. Bere soinekoa preso baten jantziaren itxura hartzen du sartzen den inguruneek marretan (kartzela batean) murgiltzen duten bitartean. Zerbait egitera doa Irene eta nolabait aurreratzen zaigu horrek arazoak ekarriko dizkiola. Zebrabidea, igogailua, soinekoa, hondartzako toalla etab. dena marraz beteta dago. Pertsonaia giltzapean dago.



Gainera, Irene arrandegitik pasatzen ikusten dugunean hildako arrainei ez diela begiratu nahi pentsa genezake baina sinbolikoki argiek polizien galdetegi fokoak dirudite eta Irene hauek saihesten saiatzen da.

Gutxi balitz, abestiak “tonight, are you trying to fall in love again?” esaten digu eta aurreratzen ari da afarian gertatuko dena.

Kapitulua amaitu eta tituluak azken atalean murgiltzen gaitu: “Arrastre arrantza”. Hasieran, baxurakoa eta alturakoa aurkeztu zaizkigu baina zalantzarik gabe, arrastre arrantza da krudelena eta gordinena. Metaforikoki, arrastreko arrantzak arrantza klasikoak suposatzen duen jokuekin (amuari heldu edo ez) amaitu eta haren aurretik dagoen guztiarekin akabatzen du.

Irenek azkenean bere transformazioa burutu du eta arrainen alde egitea erabaki du baina ez da konturatzen inoiz baino gizakiago dela. Hasieran zuen inozentzia eta

purutasun hori galdu egiten du eta mendekua hartzen du. Arrantzalea hil eta berak arrainekin egiten zuen gauza bera egiten du: jan eta disfrutatu.

Irene biluztuta dago lepoan ezkatzen adur-zapi bat baino ez daukala. Hasieran kontatu digu ezin zituela begiak kliskatu bizitzako momentu garrantzitsuak galtzearen beldur zelako baina hasieran ikusitako Irene eta amaierakoa ez dira pertsona bera. Irene aldatu da. Irene arrainen alde egin duela uste du baina arraina bezalako animaliek duten xalotasun, sinpletasun eta garbitasuna galdu du Irenek eta gizakiena berezkoak diren jarrerak izango ditu: arrantzalea akabatu egingo du mendekua izateko, bere irabazia disfrutatu egingo du, etab.

Horregatik, hondoa guztiz ezkatez osatuta dagoen arren, Irenek lehen aldiz itxi eta kliskatuko ditu begiak gizaki bat bezala. Bizitzaren krudeltasuna eta gordintasuna zaporeatuko ditu eta momentu hain garrantzitsua bizitzeko ez du beste modurik izango begiak itxiz baino.



Beraz, Irene arrainen alde jokatzeko ari dela eta haietako bat bihurtu dela pentsatzen duen bitartean inoiz baino gehiago gizaki izatera jauzia eman duela deskubritzen dugu.

Amaitzeko, Irenek begietara begiratzen gaitu zuzen-zuzen bizi dugun guztia analepsi bat dela ulertuz eta hasierako puntu berdinerara bueltatu garelako konprenituz. Hori bai, orain informazio askoz gehiagorekin. Pertsona baten eraldaketa prozesua ikusi dugu eta azkenean, arrantzaleak hain tinko eusten zion kainabera itsasoaren nahien menpe ikusten dugu noraezean.